

TXOTXETIK HERRIKO PLAZARA

Sagardotegi garaia amaitu ondoren, botilak hartzen du protagonismoa, eta horretarako, hainbat sagardo egun antolatzen dira. Famatuena Usurbilgoa da.

Usurbilgo 5.718 biztanle-
dun herria da. Bada
udaberrian egun
bat, urtero urtero,
herria plazara ateratzen
dona. Herria eta herria ez
dona. Sagardoaren omenez
dute, botilako sagardoaren
omena. Eta botilako sagardo
bera izaten da protagonista. 45
sagardo postu izan ziren, eta
postu bakoitzeko 120 botila
sagardo banatu ziren. Hau
da, 3.780 litro sagardo. Edade
onak biltzen diren seinale,
baina baita asko ere, 5.500
edalon-
tzat saltzen baitira.

Usurbilgo Sagardo Eguna, bai-
na, ez da eserezotik sortu. 1982.
urtean ospatu zen lehen aldiz, An-
dara Kiroi Elkarteak antolatuta. Sa-
gardo Jardunaldiak izan ziren
haietan 15 sagardotegi hartu zu-
ten parte eta bi hitzaldi izan ziren.
Horietako bat Juan Mari Arzak su-
kaldariak egin zuen.

Handik bi urtera, gozaketak sar-
tu zen antolaketa lanetan. 1995.
urtean, berriz, gaur egun antolatzaile
lanetan jarraitzen duen elkarteak
sortu zen: Sagardo Egunaren La-
gunak Elkarteak.

Botila sustatu

Sagardo Egunaren Lagunak El-
kartearen helburua botilako sa-

gardo bultzatzea da. Izan ere,
txotx garaia amaitzen denean sa-
gardo ez da desagertzen. Botilan
izaten da. Eta adituen ustez, txo-
txean baino hobea, heldutasuna
lortuta. Upelean dagoenean guztiz
egin gabe baitago oraindik.

Elkartearen lan nagusia hasie-
tan helburu txiki baina denborare-
kin handi bilakatu den festa anto-
latzea da, batez ere. Hala azaldu
digu Urko Manterolak, «urtarrile-
an hasten gara pasa berri den igan-
deari bueltak ematen eta bilerak
egiten. 5.500 lagunek goza dezaten
150 behar dira lanean. Eta hor ibil-
tzen gara jendea engainatzen»,
adierazi du Manterolak. Eta lan
batzuetarako bestetarako baino
errazago lortzen dira boluntario-
ak, «sagardo botatzeko prest da-
goen jende ugari dago herrian. Su-
kaldean aitzeko jendea lortzea,
berrix, gehiago kostatzen da».

Baina esfortzuak saria du, eta 27
urteko historiarekin Euskal Herri-
ko sagardo egunik ezagunena da.
Ez da erreza arrazola jakitea; Man-
terolaren esanetan, «giro ona eta
euskalduna izaten da eta sagardo-
ari berari merezi duen garrantzia
ematen zaizolako, agian». Usurbi-
len sagardoa ez da festarako aitzakia,
festako omendua baizik.

Sagardo Egunaz gain, beste ekita-
ldi batzuk antolatzen ere ahale-
gintzen dira. Urte oparoagoak eta
ez hain oparoak ere izan dira. Gaur
egun, erakusketak mantentzen da.
Erakusketak sagardo mundua izan
du ardatz, hainbat gai landuz.
Aurten, sagar motak erakutsi di-
tuzte.



GIROA. Jende ugari biltzen da Usurbilgo Sagardo Egunean. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

**45 postu, 120
botillarekin. Guztira,
3.780 litro edateko
aukera izan zen
Sagardo Egunean**



**Usurbilgo
Udala**



Gozatu Euskaraz Sagardoaren Txinparta